


Astekaria

BARREN

elgoi

Familia planifikatzen



*Ginekologi
kontsultategia*




Urkizu Pasealekua, 11.(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua)
Tfnoak: 12 10 21 - 12 02 00 EIBAR

Doktoreak
F. CRISTOBAL
A. ESTOMBA
J.M. GOMEZ
A. OTALORA
M.JOSE RUIZ

- 3 **LAU HANKATAN**
"Balkanetan azaldu diren abertzale indar eta herrialde arteko gatazken berpizte bat dela azaldu nahi nizueke" **Joxin Arregi.**
- 6 **ERREPORTAIA:** EMAKUMEAREN OSASUN ZENTRUA
Emakumearen Osasun Zentruan edozein arazori ematen zaio erantzuna.
- 8 **ARRAZOIAK ERDIBANA:** ZEIN ANTISORGAILU DUZU NAHIAGO?
Amaia Martínez de Bujo: "Preserbatiboa erabilpen errazeko metodologia da eta transmisio sexuarekiko gaisotasunak aurrehartzen dituen bakarra"
Tere Muñoz: "Harremanak sendo eta egonkorrak izanik, hobe deritzot pildora hartzeari".
- 12 **BERBETAN:** Nerea Ugarte
"Zuzendari onak guraso eta diktadore izan behar du".
- 14 **KIROLA:**
GAIA: BEDERATZI EMAKUME TAILLON MENDIAN
ELKARRIZKETA: **Patxi Aranbarri:** Eskubaloi taldeko presidentea
- 16 **ELKARTEETATIK BUELTAN**
HARITZ EUSKAL DANTZARI TALDEA
- 17 **KULTURA**
"EKIN EUSKARARI" ERAKUSKETA ELGOIBARREN

TXANDAK

FARMAZIAK:	24, ostirala: ETXEBERRIA
18, larunbata: ETXEBERRIA	OKINDEGIAK:
19, igandea: ETXEBERRIA	19, igandea: FOTERO
20, astelehena: ETXEBERRIA	
21, asteartea: ETXEBERRIA	
22, asteazkena: ETXEBERRIA	
23, osteguna: ETXEBERRIA	



PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak741155
Txanda hartzeko.....743354
Alkoholiko Anonimoak740385
D.Y.A (anbulantzia).....464622
Gurutze Gorria743864
Mendaroko Ospitala.....756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua
(Anbulatorioa)743936
Odol Emaileen elkarte.....741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.740442
PESA (Eibar)112131
Taxi Geltokia740898

UDALA

Euskara Zerbitzua744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua...742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
IMI741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC) .743088
Liburutegia.....743525
Musika Eskola.....742145
Polikiroldegia.....741361
Postetxea741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza740296
Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79
I.M.H.....74 41 32
Institua74 02 67
Ikastola.....74 27 00
L.H.I.....74 31 00
Pilar Ikastetxea.....74 13 31


HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



© KOKOE 1993

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Laguntzailea
Elgoibarko Udala
Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta,
Alberto Agirreazaldeg
Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu
Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton Bergara,
Edurne Bilbao, Rosa Iriondo,
Jose Inazio Sarasua
Kazetaria
Ainhoa Lodoso
Maketatzailea
Maite Rementeria
Publizitatea
Nekane Etxaniz
Administrazioa
Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste
Kolaboratzaileak
Myriam Aldazabal, Alberto
Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin
Arregi, Belen Arrizabalaga,
Bertso Eskola, Agur Miren
Barandiaran, Hasier Etxeberria,
Maite Iriondo, KOKOE, Imanol
Larrañaga, Koldo Lizarralde,
Aitor Lodoso, German
Meabeasterretxea, Jasone
Osoro, Diana Perez de Albeniz,
Lorea Perez de Albeniz,
Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta
Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia
Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
Tirada: 3.000 ale
Lege gordailua: SS-1.038/92
ISSN: 1133-021X
elgoi**BARREN**ek ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien
erantzunkizunik.



*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak diruz
lagundutako aldizkaria*

LAU HANKATAN



Joxin Arregi

Zergatik II

Uztaileko artikulo hartan, gaur egun ex-Yugoslavia den herriaren azkeneko urtetako zenbait datu zuen eskuetan jarri nahi izan nuen. Datu haiek azkeneko urte-
etakoak ziren eta gaurko honetan, Balkanetan azaldu diren abertzale indar eta herrialde arteko gatazken berpizte bat dela azaldu nahi nizueke.

1.- XVIII-XIX. mendean, Mediterraneo aldeak ikaragarritzko garrantzia hartu zuen, (Frantziarrak Egipton sartu ziren, Ingelesak Indiarako bide-
etan zabaltzen hasi ziren, eta Errusiarrak hegoaldean finkatu ziren). Une hartan, Turkoek XVI. mendean Balkanetan ezarritako diktadura militarra ahultzen hasia zen.

Kontuan izan behar dugu garai hartan, Turkoek beraien diktadura militarra Balkanetan mantendu zute-
la, Serbia eta Montenegro bizi ziren lurraldeak borrokalari gogorrenak izan zirelarik. Borroka honetan erlijioak zerikusi handia izan zuen.

2.- 1876. urtean, Serbiarrek Errusiaren laguntzaz baliaturik, aurre egin zieten Turkoek, ia ia irabazle atera zirelarik.

Momentu horretan Frantzia, Alemania eta Ingalaterrak, Balkanetako

Bosnia-Herzegobina lurraldea Austriarren eskuetan jartzen dute. Lurralde hau %45a serbiarrez, %30a turkoz eta %25a kroatez osaturik zegoen.

3.- 1877. urtean, turkoek errusiarren kontra zuten gatazka galtzen dutenean, Serbiak, Montenegrok eta Bulgariak bere independentzia lortzen dute.

4.- Yugoslabiaren sorrera: munduko I. gerrateak, bere eztanda Balkanetan izan zuen eta gerrate honen ondoren, Serbiak Balkanetako herri desberdinen konfederakuntza bat sortzera behartu zituen Bosnia, Herzegobina, Eslovenia... Azken batean, Serbiak hegoaldeko eslabo guztiak biltzera behartu zituen. Horrela arraza bateko herrialdeak, nahiz eta kultura, erlijio eta beste zenbait ezaugarri desberdin izan, Yugoslavia bakarra osatzera behartuak izan ziren, eta Serbiako Pedro Igoa Yugoslabiako Pedro Igoa bihurtu zen.

Hurrengo artikulua, honen jarraipena izango dela jakinarazi nahi dizuet. Hurrengo artikulua, beraz, utzi dudana garaitik gaur eguneko egoerara arte eman diren pausoen adierazgarri izango da.

BETI ARGI, S. L

*Erregalu artikulua
Instalazio orokorrak
Sukaldeko tresneria.*

ERROSARIO 6 behe. Tel: 74 16 44.

Fotero

**OKINDEGIA
OPILDEGIA**

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

**Elgoibarko
"behar dugu"**

Aldaketak gertatzen ari diren garai hauetan, gure herriko Jai Nagusiak ezin gelditu eraginik gabe. Gure betiko "Biogu" (denbora ona) izan gabe, nahiz eta eguraldiak lagundu ez, ekin-tzak garatzeko behar hainako azpiegitura herri honek baduenaren baiez-tapena adierazi digute 93ko San Bartolomeek.

Jaiak izorratzeko alferrikako ahalegin gaiztoak izan dira. Oraingo honetan, ez utzita eta zikina ere ez zegoen lokal bat hartuta, ze txirrindulari "Lagun Taldea" bazkuna-ri emanda zegoenez (93-6-14ko kultur akta) eta hauetxek lokal horretaz baliatzeko hormen raseoa egin bitartean zaborrez batetako kontainer bat atera zuten.

Udaltzaingoarekiko izorratzaile hauen arbuioa, gaizki esaka eta barne astinduak... jarraian jirak egiten lagunduko duten bildots jokia egiteko babes eta adore ematen dienen joko zikina; nola nahi ere, edozein herritako jaien gisara.

Baina beste aldaketa bat ere gertatu da nonbait,

hau da, oihuka erasotu, aurpegi eman eta atzera jotera behartu dituzten herri baten jarrera; nahiz eta ustegabeko gertaerak (eguraldiarenak) eta espe-ro zirenak (izorratzaileak) gertatu, guztienak diren jaiak pakean eta pozez nola igaro ikasbidea jarri duen herri batena. Guzti horregaitik bada San Bartoloetako jaien antolatzaile naizenaren ohore eta arduraz harro naiz.

Hau ez nuke bukatu nahi, nire esker ona, Udal Lantaldeari eta Udaltzaingoari, Gurutze Gorriko gazteei, Denbora Libreko taldeei etab..., adierazi gabe, baina batez ere berriz egindako erronkaren aurrean elgoibartarrek aiderazitako baretasun eta herrikotasunagatik.

**Guillermo Garate
Kultura Batzordeko
Lehendakaria**

**Gasa eta jipoiak
Gaztetxearen
aurka**

Gurdiari tira egiten pasatako zazpi hilabeteen ondoren: asanbladekin, enkarteladekin, manifikin, irratsaioekin, kolektiboekin, laguntza, erakusketekin,...

eta Udaletxearekin eramandako borroka burokratikoarekin, gurdiak gainezka egiten du eta soka eteteko zorian aurkitzen da, lokalik gabe jarraitzen dugulako, ate guztiak muturretan isten dizkigutelako. Ixiltasun politika. Burmuinak udarako eguzki kiskalgarripean berotzen dira. Asanblada bat abuztuak 21ean, larunbata. Udaletxeari hiru milioi pezeta kostatako inkestek gure erabakia legitimatzen dute; soluzio bakarra okupazioa da.

Helburua: plaza txikiko eskolen azpian kokatzen den lokal municipal bat. Egur danbatekoak atean, nahaspiloa, egokitzapena, eta lehenengo txakur zaunkak atean (oraingoan urdinez jantzirik). Hasieratik akosatuak izan ginen. Txapelgorriak ekarriko zituzten lokala desalojatu ezean.

Astelehenera arte iraun zuen agintaritzaren in-kompetentearekin izandako joan-etorrien ondoren, hartuko ziren neurri-gabe-ak gorpuztu ziren, izaera polizia-la hartuz, kasko gorritz, peloteraz, porraz, eta Euskadiko uso guztiak akabatzeke beste gas-ez armaturik. Haiek dira agintzen dutenak: soinean lazo

urduindun, eta beraien irri-farre ironikoen islada den uso herdoilduaren demokrata bakezaleak. Nazka. Goragalea. Itodura.

Alkateari esan, inondik ere ez dela bere herriko errepresentatzailea, gu akosatuak eta gaseatuak ginen bitartean gure negoziatzeko eskaerari uko egiten ziola, herriko dirutik ordaindutako 400.000 pezetako afari batez sabela betetzen zuen bitartean eta senitartekoen harridura aurpegiaren aurrean, beraiekin gure detentzio eta jipoiketari buruz hitz egiteari ere uko egiten ziola, pilota partidu bat ikusten baitzegoen: pelota ederrak jokaldirako.

Eta PNVkoei esan, jipoiek, gartzelaraketek edo/eta beste edonolako bide errepresibok ez gaituela beldurtzen ezta beldurraraziko ez atzeraraziko. Arrazoia gure, eta lokalak eskatuz apoiatzen gaituzten gazteen %85aren alde dagoela, eta honek ez duela amaierarik izango gazteentzako lokal bat lortzen dugunera arte: GAZTETXE bat.

Hau gertatzean, gazteok buruhauste bat gutxiago izango dugu. Ez da txantxetan hartzeko gauza.

Gazte Asanblada

ecenarro
Barruko erropak
Umeentzako erropak
San Frantzisko 10, Tel.: 74 26 19

INTERIORES
- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK
Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

ORTOPEDIA
ARRIETA
Bidebarrieta 4, Eibar
Tel. 11 84 10

Iraegui
ERROTULAZIOA
☎ 74 39 52
San Antolin 74 37 06



Aste honetako erretratua **Justo Soraluze** lagatakoa da. Erretratua 1955. urtean Azkoitiko Urratein atera omen zuten. Sallobenteko mutil gazte kuadrila elkartu eta bazkari baten bueltan ederki asko pasa omen zuten (erretiro ordua jakiteko ahaleginak egin baditugu ere, ixilpean edukitzea hobe izango dela aitortu digute). Bazkalostean, eta egun hura betirako akorduan gelditzeko, tabernako jabeekin itxurazko erretratu hau atera zuten. Ikus dezagun zeintzuk diren Sallo-

bentetik Urrateira "ihes" egin zutenak: ezkerretik esku-mara, goitik behera:

1go ilara: **Estanis Juaristi** (tabernakoa), **Jose Zabala**, **Maritxu** (tabernakoa), **Justo Soraluze**, **Luis Elustondo**, **Tomas Zabaleta**, **Juanito Bollar**, **Jesus**, **Alejandro Arakistain**, **Inazio Mari Narbaiza** eta **Ignacio**.

2. ilara: **Esteban Gurrutxaga**, **Pilar** (tabernakua), **Pedro Izagirre**, **Jose Sodupe**, **Justo Arriola**, **Maximo Osoro** eta **Jose Mendikute** (lurrean jarrita).



ERREMINTA
MAKINA
INSTITUTUA

93-94 kurtsoaren AURKEZPENA

Irailaren 24ean goizeko 10etan izango da.

TIRO RIRO



San Frantzisko, 54. 74 13 86



● ● ● ALDERDI EGUNA 93 ● ● ●

EAJ-PNVk jeltxide eta lagun guztioi Salburua/Gasteizen, irailaren 26an, ospatuko den Alderdi egunerako gonbitea luzatzen dizue. Autobusak antolatu ditugu.

AKANPADA: EGik Elgoibarko gazte guztiak gonbidatzen ditu hilaren 24, 25 26an egingo den akanpadara. Honetarako autobusak doan izango dira.

Kasu bietan izena emateko: Batzokia taberna 74 08 21/Foruen plaza 74 27 44

Emakumearen Osasun Zentrua: 10 urte lanean

Duela ia hamar urte zabaldu zen Elgoibarren emakumearen osasun zentrua. Lehenago anbulategi zaharrean zegoen, eta Famili Antolapidetzarako Zentrua deitzen zen. Honetan hilekoa edukitzeko adina zuten emakumeak bakarrik behatzen ziren. Zentrua, herriko emakumeen eskariz, handitzen eta zabaltzen joan zen. Anbulategi berria egin zutenetik, duela bost bat urte, Emakumearen Osasun Zentru bihurtu zen lehenagoko hura.



↳ Fitxa egin eta gero, emakumeak bere arazoa azaltzen dio emaginari.

Emakumearen

Osasun Zentruan emakume guztien azterketa egiten da, hilekoa edukitzeko adina dutenena eta ez dutenena ere bai. Neskato, gazte, heldu eta zaharrak aztertzen dira zentru honetan.

Emakumearen Osasun Zentruan edozein arazori ematen zaio erantzuna. Zentruak zerbitzu ezberdin ugari eskaintzen ditu. Famili Antolapidetzarako Zentrua ere bada, beraz, emakume batek kontrazepzioari buruzko metoduen informazioa nahiko balu, zentrua jo dezake. Bertan kasu bakoitza banan banan aztertzen da eta bakoitzari egokien doakion metodologia jartzen zaio. Egun hiru

Azken urteetan, kantzerraren prebentziorako azterketak egiten hasi dira eta duela urtebete, menopausiaren kontrolak egiten hasi ziren.

metodu daude: hormonazkoak (pildora eta DIU), "barrerazkoak" deitutakoak (preserbatiboa) eta behin betirakoak (tronpen lotura eta basektomia). Metodurik seguruenak preserbatiboa da, hausturarik ez badago behintzat. Hausturarik balego, beste produktu batzuk erabiltzen dira haurdun ez geratzeko.

Tokologia deitzen den adarra ere eskaintzen du Zentruak. Tokologian emakumea haurdun gelditu eta erditzen duen arteko epea eta, haurra eduki, eta 40 egun irauten dituen epea aztertzen dira. Emakumearen haurdunaldiko 37. aste-ara arte, errebisio eta miaketa guztiak Osasun Zentruan



↳ Haurdunak, haurra entzun dezake mikrofono bat sabelean jarrita.

egiten dira. 37. astetik aurrera, Mendaroko Ospitalera bidaltzen dira haurdunak. Haurdunak gain, ginekologia eta Zitologia zerbitzua ere badago. Haurra eduki aurretiko hezkuntza eta haurra eduki ondorengo hezkuntza ere Osasun Zentruan bertan burutzen dira: gimnasia, arnasketa... Azken urteetan, kantzerraren prebentziorako azterketak egiten hasi dira eta duela urtebete, menopausiaren kontrolak egiten hasi ziren. Zentruan emagina, ginekologoa eta administrari bat ari dira lanean.

Lehendabiziko aldiz Osasun Zentrua doan emakumeari fitxa antzeko bat egiten zaio. Emakumeak emaginari bere arazoa azaltzen dio eta honek azterketa egin ondoren, tratamentua jarri edota ginekologorengana behatu dezan bidaltzen du. Abortoaren arazoarekin datorrenari informazioa

Lehenago, gazteek batez ere, alboko herrietako Famili Antolapidetzarako zentruetara jotzen zuten beldurrak edo lotsak eraginda.

ematen zaio zentruan eta legeak aurreikusten duena betetzen badu zein zentru publikotara jo dezakeen azaltzen zaio. Horrelako kasuak 20 inguru izaten dituzte urtero.

Osasun Zentrua zabaldu zenetik 3000 emakumeri egin zaio fitxa. Ginekologia kontsulta astean bi aldiz, asteazken eta ostiraletan, izaten da eta, aldi bakoitzean, 30 bat emakume atenditzen dira. Astearte eta ostegunetan emaginak izaten du kontsulta eta astelehenean, ama izateko hezkuntza ematen da.

Emakume elgoibartarrron jokabidea asko aldatu omen da Zentrua zabaldu zenetik gaur arte. Lehenago, gazteek batez ere, alboko herrietako Famili Antolapidetzarako zentruetara jotzen zuten beldurrak edo lotsak eraginda. Baina gaur egun, salbuespenak salbu, naturaltasun osoz jotzen dute Emakumearen Osasun Zentrua.

Emakumeei

Aldizkari honen bidez herriarengana zuzentzeko aukera daukagunez, Emakumearen Osasun Zentruaren balantze bat egin nahi genuke. Azken bi urte hauetan Mendaroko Ospitaleko tokoginekologoak izan ditugure artean, haietako bat, egun Galdakaoko Ospitalean dagoen Aritzeta doktorea izan genuelarik.

Urte hauetan, bai kontsulta kopurua bai kalitate profesionalak, gora egin dute.

Kontsultei dagokienez, 50 urtetik gorako emakumeak zein haurdun dauden emakumeak gero eta gehiago etortzen direla ikusi dugu. Dena den, Famili Antolapidetzarako programak portzentaia handiena duena da.

Gaur egun, bi toko-ginekologo, Fraca eta Gabarain doktoreak etortzen dira, astean bi egunez, goizeko ordutegian.

Lerro hauen bidez emakume guztiak zerbitzu hau ezagutzera animatu nahi zaituztegu. Osasun Zentruko (Anbulategia) bigarren pisuan gaude. Gure telefonoa honoko hau da: 74 29 50.

Era berean, Osakidetzari, eta Deba Beheko administratzaile den A. Zubizarreta andereari, gure eskerrik beroenak erreportaia hau burutzeko baimena emateagatik.

Maria Rosario Rojo
Emakumearen Osasun Zentruko Emagina
(Erredakzioan itzulia)

Zein antisorgailu nahiago duzu?

Nire iritziz gaurregun, antisorgailurik eraginkorrena preserbatiboa da, bada, desira ez duzun haurdunaldi bat eragozteaz gain, oso erabilpen errazeko metodua da eta transmisio sexualeko gaisotasunak aurrehartzen dituen bakarra. Izan ere, hauetako batzuk hilkorrek izatera hel daitezke.



erabilpen zuzena ematen badiogu eta jakina, metodu honek ez du osasunarentzat inolako kontraefekturik, halaber, aipatu transmisio sexualeko gaisotasunak eragozten ditu.

Guzti honengatik eta bukatzeko, esan dezagun, guztiok gazte eta ez hain gazte, izan behar genukeela informazioa gai honetaz eta aukera dezagun gehien komeni zaigun antisorgailua, ahaztuz erlijioak ezartzen dizkigun debeku eta tabuak, izan ere, pertsonen bizitza baitago sarritan jokuan.

Amaia Martínez de Bujo



Dauden antisorgailuen artean, pildora, nahiz eta preserbatiboaren atzetik kokatu, bere eraginkortasunagatik, antisorgailu erabilgarrietariko bat da, preserbatiboarekin batera haurdunaldien tasarik gutxiena duelako.

Egia da, preserbatiboek baino kontraindikazio gehiago dutela pirulek, baina denbora pasa ahala kontraindikazio hauek gutxitzen ari dira; gero eta kalte gutxiago egiten diote giza gorputzari.

Gauza guzti hauek jakinda ere, ni pildora hartzearen aldekoa naiz. Nire ustez, preserbatiboak ondo daude, batez ere, mantentzen diren harremanak ezegonkorrrak direnean, baina harremanak sendo eta egonkorrak izanik, hobe deritzot pildora hartzeari preserbatiboa erabiltzeari baino.

Preserbatiboa erabiltzea hotzago gertatzen da, hau da, preserbatiboa, batzutan, traba bihurtzen da. Halere,

gaur egungo gaisotasunak direla medio, estatistiken arabera, preserbatiboak dira, kutsapen arriskua gutxitzen duten antisorgailu bakarrak.

Horretaz aparte, nik uste dut preserbatiboak erabilgarriagoak direla, hartzeko orduan pildora baino errazago lortzen direlako. Hau da, pildorak hartzen hasteko medikuarengana jo behar dugu, preserbatiboak lortzeko, ordea, ez dago batere arazorik, edozein lekutan lor ditzakegu.

Nire ustez, horretan datza arazoa, bestela pildora erabiltzen duen jendea, preserbatiboa erabiltzen duena baino jende gehiago izango litzateke.

Tere Muñoz

Orainko kafetegia

BERISTAIN EDARI BANATZAILEA

- Coca Cola
- Keler zerbeza
- Altolako Ura
- RAM esnea
- Codorniu
- Ardoak eta edariak

lñaki 74 38 27

BAZOKIA
Jatetxea-Taberna

P. Muguruza 8. Tel: 74 08 21

Zein antisorgailu nahiago duzu?



Manoli Olaizola

22 urte, tabernaria


Pildoria iruditzen jata hobia. Ez dakit zergatik, komoduagoa da. Preserbatiboa ez da batere komo-
dua.



Arantza Narbarte

45 urte, etxeko langilea


Preserbatiboa ez zait ego-
kia iruditzen. Pildora
nahiago dut. Seguruagoa
da kontraindikazioak
dituen arren.



Fernando Plaza

24 urte, administraritzza

Segun eta zein kasutan.
Bikote egonkor batean,
egokiagoa iruditzen zait
pildora, ostantzean preser-
batiboa ondo dago.



Ricardo Molina

24 urte, mekanikoa

Hasieran preserbatiboa
hobe, neska pildora har-
tzen ez ibiltzeagatik. Hale-
re, ez diot pildorari hain-
beste oztopo ikusten.



Edurne Ortiz de Villalba

29 urte, langabetua

Gauzak dauden bezala
egonda, preserbatiboa.
Gaisotasunen prebentzio-
rako egokiagoa da. Komo-
doagoa, noski, pildora da.



Rufino Del Valle

34 urte, tabernaria

Preserbatiboa ez da komo-
doa baina egokiagoa iru-
ditzen zait. Pildora emaku-
mearen osasunarentzako
kaltegarria dela pentsatzen
dut.

Cuando nazca te querrá en euskara.

Langabetuentzat beka sistema

ELGOIBARKO

EUSKALTEGIA

Plaza Txikia, 3
74 13 32

EL FUTURO ES EUSKALDUN.

Déjate querer, matricúlate en

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behea. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

PUB

LA TANTE

elgoibar

Radiestesia ikastaroa

Pasa den astebukaeran, hilak 11, hasi zen radiestesia ikastaroa, hurrengo hiru astebukaeratan luzatuko da. Larunbat arratsaldeko 4etan Kultur Etxean izango da ikastaroa. Radiestesiaren teknika, penduloaren bidez, edozein arazoren muina topatzean datza. Buruko edo belarriko minak, ondoezak, min neuralgikoak, asma, biriketako eta giltzurrunetako minak eta minbizia aztertuko dira ikastaroan.

Txanda honetara apuntatu ezinik gelditu direnentzat, beste ikastaro bat antolatuko da azaroan.

Dantzari buruzko argazkien bilduma

Haritz Dantzari Taldea dantzari buruzko argazki bilduma egiteko asmoarekin dabil. Horregatik, elgoibartar guztiak dantzarekin zerikusia duten argazkiak *Azku*e dendan uzteko animatu nahi ditu, bertan kopia bat atera dezaten. Argazkiak berehala bueltatuko zaizkio jabeari eta kopia egiteko gastua Haritz Dantzari taldeak hartuko du bere gain. Honekin herriko dantzarien bilduma mardula egin nahi dute Haritz Dantzari taldekoek. Informazio gehiagorako honoko telefono honetara dei: 74 01 25 zenbakira, edota taldeko kideren batengana jo.

Edu Arrillaga eta Koldo Lizarralde

Gurutze Gorriak Edu Arrillaga eta Koldo Lizarralderen artean egindako Algeciras-i buruzko lana argitaratu du. Argazkiak Algeciras-etik Marruekos-era pasuan hartuta daude eta afrikarrek jasan behar dituzten egoera ezberdinak erakusten dituzte. Argazkien testuak Koldo Lizarraldek idatzitakoak dira.

Aire libreko zinea beste bi astez luzatuko da




Ongarri zine Kluba eta Udalaren arteko akordioari esker, Plaza handiko aire libreko zineak beste bi aste gehiago iraungo ditu. Azken emanaldia pasa den larunbatean, hilak 11, izatekotan bazen ere, beste lau pelikula proiektatzea erabaki dute Ongarrik eta Udalak. Lehen bi pelikulak hilaren 17an

eta 19an emango dira eta beste biak hilaren 24.eko astebukaeran. Hilaren 17an, ostirala, "Eternamente joven" filma ikusi ahal izango dugu eta hilaren 19an, igandea, "El Guardaespaldas". Proiektzioak orain arte bezalaxe Plaza handian izango dira eta hasiera ordua 9,45era aurreratu da.



Pasa den larunbatean, hilaren 11an, Morkaiko Mendizale Elkarteak afari omenaldia egin zien Nanga Parbat espedizioako Aitor Esnaola eta Pablo Barranetxeari eta, Aritza Monasteriori. Gure-Bide elkartearen zuten afariaren ostean garaikur bana eman zitzaizkien mendizaleei. Garai-kurrak, Juan Mari Eguren alkate ordea, Morkaikoko lehendakari den Andoni Goikolea eta Federazioko lehendakari den Pako Iriondoren eskutik jaso zituzten.



AZKUE

Perretxikoen XIX. haur lehiaketa

Igandean, hilak 19, *Karakate* mikologia elkarteak antolatuta, urteroko Deba Arroko Perretxiku Erakusketaren Haur Lehiaketa ospatuko da Plaza handian. Epaimahaia *Aranzadiko* kideez osatuta egongo da eta erabakia eguerdiko ordubatean jakinaraziko zaio ikusleagoari. Sailkapenean puntu gehien jasotzen dituztenei sariak emango zaizkie eta gutxieneko puntuazioa lortzen duten hamar urtetik gorakoek txango bat egiteko aukera izango dute. Perretxiku erakusketa eguerdiko ordubiak arte egongo da irekita.

Lehiaketan parte hartzeko hilak 18ko arratsaldeko 8ak baino lehenago eman beharko da izena *Karakate* elkartean.

Aparteko jai giroan inauguratu zuten San Migel auzokoek "Murkaikupe" frontoia pasa den igandean. Auzotarrez gain, herriko pertsona mordoia hurbildu zen jaira. Meza ondoren Don Carlos Agirrek, Elgoibar-ko parroko izandakoak, frontoia bedeinkatu zuen. Bazkarian 232 pertsona izan ziren eta Azpillaga, Ziarda, Meabe, Mugartegi eta Mañukorta bertsolariek bazkaloste ederra eskaini zuten. Maixa eta Itziar trikitrilari-ekin iluntzeko 8ak arte luzatu zen jai.



ERREMINTA
MAKINA
INSTITUTUA

HIZKUNTZ IKASTAROAK 1993-94 ikasturterako matrikula



HIZKUNTZAK Alemana, Frantsesa, Ingelesa

MAILAK Oinarrizkoa, Erdi-mailakoa, Aurreratua, Teknikoa, Komertziala, Itzulpena (Eskaeren arabera)

IRAUPENA 1.993ko irailaren 27tik
1994ko ekainaren 24ra

ORDUTEGIA 17:30-19:15 eta 19:15-21:00

IRAKASLEGOA Natiboa

IKASLEGOA 15 urtetik gorakoa

MATRIKULA Irailak 27a arte

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA

Erraminta Makina Institutua
Hizkuntz saileko arduraduna
San Roke Auzoa, 1
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: (943) 74 41 32 - Fax: (943) 74 41 53
9:00 - 13:00 14:30 - 17:30

"Zuzendari onak guraso eta diktadore izan behar du"

Nerea Ugarte, gazte azpeitiarra, hemezortzi urte besterik ez dituela, Elgoibarko "Itxaropena" abesbatzaren zuzendari dugu. Urtebete darama lan honetan eta

bi urte barru denetik kantatzeko gai izatea gustatuko litzaiokeela esan digu. Txikitatik musika munduan sartua, bere desioa mundu honetan zerbait izatea da.

- Noiz hasi zinen musika munduan? Zertan ari zara gaur egun eta zeintzu dira etorkizunerrako asmoak?

- Gutxi gora behera 8-9 urterekin hasi nintzen Azpeitiko Musika Eskolan solfeoarekin. Gero pianoa ikasten hasi nintzen. Orain Donostiako kontserbatorioan nago. Pianoarekin jarraitzen det, eta orain "Direkzioa" ikasten hasi naiz. Nere asmoa zeozertara iristea da.

- Duela urtebetetik "Itxaropena" abesbatzaren sorreratik, bertako zuzendari zara. Kontaiguzu zerbait abesbatzaren sorrera eta bilakaerari buruz.

- Bazegoen Elgoibarren zerbait desberdina, kantatu nahi zuen jende kuadrilla bat. Beraiek zuzendaria behar zuten, nik korua behar nuen eta hortik dena sortu zen. Eboluzioari buruz, orain ez gera lehen bezain txarrak. Helburua denetik ezagutzea da, bai polifonia, bai jazz...

- Zein musika moeta kantatzen duzue?

- Denetik. Nire intenzioa denetik kantatzea da, baina oraindik ezin dugu horrelakorik egin.



"Kantatzeko ez da beharrezkoa ahots ona izatea. Musika sentitu eta kanpora atera behar da"

Ez daukagu zenbait gauza kantatzeko teknika nahikoa. Momentuz ez dut dena sartzea pretenditzen, baina ia hemendik aurrera, bi edo hiru urtera, denetik kantatzen dugun.

- Hain gaztea izanik ez al dizu errespeturik ematen zu baino dextente nagusiagoa den jendea zuzentzea?

- Ez. Haseran, koro bat zuzendu behar duzula pentsatuz gero, bai, errespetua ematen du; baina ezin da txorakeriatan ibili. Egin behar dena

egin behar da. Aurpegia eman eta norbere burua errespetarazi egin behar da.

- Zer da beharrezkoa kantari ona izateko? Zer da garrantzitsuagoa ahots ona izatea ala teknikaz ondo jantzia egoitea?

- Beharrezkoa da musika gustatzea eta musikalitatea edukitzea, musika sentitu eta kanpora ateratzea. Teknika ez da beharrezkoa, teknika irakatsi egiten da. Ahots ona izatea ere ez da beharrezkoa, baina edukiz gero hobeto. Musikalitatea eta ahots piska bat eduki behar dira. Hortik aurrerakoa zuzendariaren lana da.

- Nolako kantariak dituzu abesbatzean?

- Denetik dago. Badaude ahots onak, baina jendeak ez du teknika ezagutzen. Orain ahots horiek aurrera ateratzea behar dira. Oraingo lana ahotsak nibelatu eta lanean hastea da. Arazorik handiena "belarriarena" da.

- Zein da zuzendariaren betebeharra?

- Taldearen animatzaileria izatea. Psikologo ere izan behar du. Zuzendari on batek guraso eta diktadore izan behar du. Guraso, bere seme-alabak ulertzeko, diktadore, paliza ederrak emateko.

- Zein da "Itxaropena" abesbatzak duen beharrik premiazkoena?

- Elgoibarren zerbait aterako badegu, beharrezkoa da jendearen laguntza, bai diru aldetik bai musika aldetik. Denak ezin dira kantatzen hasi, baina nahi duenak etortzea badauka. Jendea behar dugu.

- Zein da "Itxaropena" abesbatzak duen beharrik premiazkoena?

- Elgoibarren zerbait aterako badegu, beharrezkoa da jendearen laguntza, bai diru aldetik bai musika aldetik. Denak ezin dira kantatzen hasi, baina nahi duenak etortzea badauka. Jendea behar dugu.

Nerea Lodoso

Jon Sanz
Publizista



- **Krisiak eraginik izan al du publizitatearen munduan?**- Bai, asko.
- **Ona al da Euskal Herrian egiten den publizitatea?** - Nik uste baietz. Donostia aldean badira hiruzpalau agentzia estatu mailan ere maila handikoak direnak.
- **Stressa kentzeko zer?** - Antidoto bakarra opor luze batzuk.
- **Sagardoa ala txakolina?** - Sagardoa.
- **Bezpera ala txiki eguna?** - Txiki eguna, dudarik gabe.
- **Zein herrialde ezagutu nahi zenituzke?** - Lurralde exotikoak: Kenia, Jamaika...
- **Hiriko ala herriko bizitza?** - Biek dituzte beren enkantuak.
- **Publizitateak engainatu egiten al du?** - Engainatu ez, baina askotan ez da egia osoa esaten, kontsumitzaileen artean konfusioa sortuz.
- **Errealean atzerritarrak bai ala ez?** - Kontrakoa naiz, baina futbola dagoen moduan beharrezkoak direla uste dut.
- **Mintxeta ala Lerun?** - Ez dut ezagutzen Mintxeta.
- **Bertso saio bat ala rock kontzertu bat?** - Bruce Springsteen-en kontzertu bat.
- **Publizitatean, itxura fondoa baino garrantzitsuagoa?** - Ez.
- **Zer behar da publizista ona izateko?** - Jakingo banu, publizista ona izango nintzateke. Uste dut kalitate askoren bilduma dela: "sentido komun", medioaren ezagutza...
- **Tenisa ala pala?** - Ikusteko, tenisa, baina jokatzeko pala.
- **Zeren truke salduko zenuke arima?** - Ez dut ondo ulertzen zer den arima, baina bizitza honetan denak du bere prezioa.
- **Txikitan zein zen zure ametsa?** - Txikitan "El retiro" eta "Katuska" izan ziren, gero etorri zen "Ametsa".
- **Zer liburu mota atsegin duzu?** - Denetatik. Oso luzeak badira aspertu egiten naute azkenerako.
- **Erantzun subliminalen bat eman al didazu?** - Agian.

Eduardo Sanz

BERTSOTAN

SAN MIGELEKO FRONTOIA

Doinua: "Iparragirre abila dela..."

Gure herria beti izan da auzo kontuan gizona santu bakoitzak badu berea hori dugula zuzena bada bat oso ixila txiki bezain apala beharbada ez onena auzo ixila eta apalak San Migel dauka izena. (Bis)

Urteak pasa egiten ziren ermitatxoa zahartu berritu ondoren ez ziren haiek lana egiten aspertu frontoia egin dute izena Morkaikupe aterpea ere gertu auzo lana da garrantzizkoa eredu dezagun hartu. (Bis)

Josu Guenetxea

BOUTIQUE DEL PAN
B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92


MEKANOSA
Errosario 30 tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

AITZ BIZKAR
— Taberna —
Errosario, 20.

Espeleologiari buruzko III. ihardunaldiak

Elgoibarko Leizarpe espeleologi elkarteak espeleologiari buruzko III. ihardunaldiak antolatu ditu. Ihardunaldi hauetan Estatu mailako espeleologia taldeek hartuko dute parte eta Lasturreko Aixa, Pagatza, Ermittia eta Arrankarien kobazuloetara jei-tsierak egingo dituzte. Leizarpekoek bertara joatera animatzen direnentzat, bideo emanaldiak prestatu ditu. III. ihardunaldi hauen barruan, botanika eta mikologiari buruzko erakusketa egongo da ikusgai Lasturreko "Arruan haundi" baserrian. Espeleologiari buruzko ihardunaldi hauek hilak 17an, ostirala, hasi eta 20an bukatuko dira.

Besaidera irtenaldia hilaren 19an

Euskal Mendi Faderakundeak hildako mendizaleen oroimenez Besaideren eguna antolatu du. Aurten, hilaren 19an, igandea, izango da eta Besaidera joan nahi dutenentzat, Morkaiko Mendizale Elkarteak goizeko irteera antolatu du: Udala-Udalaitz-Besaide. Irteera goizeko 8etan izango da Plaza handitik, eguerdian etxera bazkaltzera itzultzeko. Izena emateko Morkaikoren lokalera jo behar da.

Era berean, Morkaikok ohar bat zabaldu nahi du bazkideen artean: etxean mendiari buruzko argazki zahar nahiz berriak dituztenek, elkartetik pasa daitezke argazkiokin, artxibo bat egitekotan dabilza eta.



Patxi Aranbarri

C.D. eskubaloit taldeko presidentea


-Zenbat eskubaloit talde daude Elgoibarren? -Aurten hiru talde daude, kadeteetan mutil taldea, jubeniletan ere mutil taldea eta seniorretan neska taldea. Gure helburua datorren urtean sei talde edukitzea da. Kadete, jubenil eta senior kategorietan neska eta mutil talde bana edukitzea.

-Lehenago bazegoen seniorretan mutil taldea. Zergatik desagertu zen? -Jenderik ez zegoelako. Talde bat osatzeko gutxi gora behera 15 jokalaria behar izaten dira. 12rekin ere hasi leike; minimoa da.

-Orain ba al dago senior taldea osatzeko aukerarik? -Bai. Datorren urtean jubenilak edadea bete eta senior kategoriara igoko dira.

-Eta nesken taldea? -Ez dakit zer pasatuko den. Gure asmoa aurten hasi eta datorren urtean ere jarraitzea da baina hori nesken eskutan dago. Klubak ez du zer esanik.

-Nola ikusten duzu aurtengo denboraldia? -Jubenilak oso ondo ibiliko direla uste dut, liga irabazteko moduan. Kadeteak, lehen urtean daude eta flojo xamar ibil daitezke. Nesken taldeari buruz zerbait esatea oso zaila da. Guk gure taldea ezagutzen dugu baina gainontzekoei buruz ez dakigu ezertxo ere.



Gipuzkoan 5 edo 6 talde daude eta ez dakigu zein den beraien maila.

-Eskubaloit eskolak eman al du dagoeneko fruiturik? -Ez gehiegi. Elgoibarren gehienak futbolearen eta saskibaloian aritzen dira. Eskubaloira, berriz, oso gutxi etortzen dira. Ume gutxi dabil. Zerbait egin beharko da zaletasuna pizteko.

-Jokalari ere izan zara. Guztiz lagata al daukazu? -Bai. Seniorretako taldea desagertu zenean eskubaloia laga eta direktiban hasi nintzen.

-Non gustorago? -Bixetan. Gaztiei laga behar tokia. Ez dakit baina beharbada datorren urtean animatu eta seniorrekin hasiko naiz.

• Adina: 27.

• Zuzendaritzaren alderik txarrena?

Ez dauka.

• Eta onena? Jendea ezagutzen dela.

• Zer du erakargarri eskubaloitak? Kirologorra eta bizia dela.

• Atzerritarrak behar al dira talde onak edukitzeko? Goiko mailetan bai.

• Elgorriaga ala Arrate? Elgoibar.

UDA BERRI
ELGOIBAR

IDARRAGA
KAFETAK
Eguneroko errealdiak
San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39

JOSE ANGEL ZABALA
URDAITEGIA
Berezitasunak:
Bakilaua
Txerrikiak
Merkatu Plaza 33-34


magu's
ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA
San Roke 6 behea tel. 74 34 91

Bederatzi emakume *Taillon* mendian

Pasa den astebukaeran herriko bederatzi emakume Gavarnie aldera abiatu ziren 3.144 metrotako Taillon gailurrera igotzeko asmoz. Pirinio zentrallean dagoen gailur honetan euria eta hotza egiten du eta haizeak gogor astintzen du. Honoko hau Pirinio gailurretara egiten duten zazpigarren igoera da, beste urte batzutan zenbait gailur egin dutelarik: El Rincon de Alano (2.353), Anie (2.505), Garmo Negro (3.051) e.a. Gavarnie-tik bueltan honoko kontakizun hau idatzi du Izaskun Estibarizek:

"Zazpigarren aldia da honoko hau Pirinioetara joan, zonaldea ezagutu eta gailur batera igotzeko batzen garena eta bien bitartean farre batzuk egiteko asmoz. Oraingo honetan Gavarnie aldera joan eta ezker aldeko gailur errazenetariko bat igotzea erabaki genuen.

Larunbat arratsaldean, bederatzi emakume Gavarnie aldera abiatu ginen arrosa koloreko autobusean. Barometroak inestabilitatea iragaritzen zuen eta iluntzean, oinez, Gavarnie-ko zirkora barrena joan ginen. Gailur altuenak hodei beltz handiez inguratuz zeuden, Astazous, Marborè, Casco... Ez genekien euririk izango genuenentz, eta guztiak izugarri harritu gintuen. Granjas de Holle-ko errefugioan bapo afaldu eta lo egin genuen; Gavarnie-tik kilometro batera baino ez geunden. Goizean goiz



➔ Hona hemen "espedizioko" partaideak.

jaiki ginen. Kanpoko aldean zerua izarrez beterik zegoen. Ederki gosalduta ondoren Bujarueloko (12 km.) porturantz abiatu ginen. Eguzkia urrutiko mendien atzetik ageri zela zirudien. Mendiak Taillon baino txikiagoak ziren; ifar aldeko aurpegiak txingurri txiki sentiarazi gintuen. Poliki baina gel-

"Pirinioetako hirumilakorik errazena, ezeroso bihurtu zitzaigun, baina gailurrera iristea lortu genuen".

ditu gabe bideari ekin genion. Hego haizeak arrapaladan ifar alderantz bidaltzen zituen hodeitzar zuriak gailurrak estaltzen hasi ziren. Bidea erraza eta eroso zen, ordubetean Sarradetseko aterpetxera iritsi ginen. Glaziarretik gora "Brecha de Roland"eraino jarraitu genuen. Beste ordubete batean Tailloneko gailurrean geunden.

"Brecha"n haizeak gogor jotzen zuen, hodeiek inguratu gintuzten eta blai eginda geratu ginen. Hotz zegoen. Pirinioetako hirumilakorik errazena, ezeroso bihurtu zitzaigun, baina gailurrera iristea lortu genuen. Gizon edadetu batek, (60 urte), ohizko argazkia atera zigun eta berehala beherantz jeitsi ginen aterpetxe epelago baten bila. Sei ordu beranduago autobusean sartu ginen gailurra lortzearen satisfazioaz, baina paisaiaren osotasuna ikusi ezinaren penaz.

Etixeratzerakoan datorren urteko irteera prestatu genuen."

Zenbait datu

Iraupena: Igoera: 3 ordu eta 30 minutu. Guztira: 6 ordu.

Materiala: Pioleta ez zen beharrezkoa izan. Sasoi honetan ez dago elurrik glaziarrean.

Desnibela: 875 metrotakoa

Partaideak: Arantxa, Mari Tere, Isabel, Arrate, Mertxe, Lurdes, Gloria, Jose Luisa eta Izaskun.



Haritz Euskal Dantzari Taldea

Haritz Euskal Dantzari taldea

Elgoibarko Izarra Kultur elkartearen baitan sortu zen duela hogeit bat urte. Herriko beste iharduera guztiek bezala Haritz taldeak, gero, bere bide propioa urratu zuen. Gaur egun Deba bailarako dantza talde garrantzitsuenetarikoa dugu eta bertan 85 kidek, gazteak gehienak, dihardute lanean.

Jose Inazio Sarasua eta Lourdes Odriozola dantzariaren zuzendaritzapean, Haritz dantza taldeak urtean zehar burutzen duen ekintzarik garrantzitsuenak, "Zortziko" edo "Alakiketana" izeneko ikuskizuna da. Euskal dantzen ikuskizun hau urtero burutzen dute Euskal Herriko beste dantza talde batzuekin batera. Hasieran, ikuskizun hau behin bakarrik egiteko muntatu omen zen baina Eusko Jaurlaritzak, Donostiako Victoria Eugenia, Bilboko Arriaga, Miarriz, Barakaldo, Olite eta Gasteizko zirkuitoetan sartzea erabaki zuen. Hori dela eta, Haritz Dantza taldeak Euskal Herriko dantza zirkuito garrantzitsuenetan aritzeko aukera du.


Haritz Dantza taldea, bailarako dantza taldea bihurtzen ari da. Eibar eta Debako gazteak Elgoibarrera etortzen dira dantza egitera. Dena den, Haritzekoen ustez, euskal dantza tradizionalak bultzada baten beharra du eta herri guztien artean zerbait egin daitekeen esperantza dute.

Taldeari 227 egun eskaintzen zaizkio urtean, bilerak direla, entsaiuak edo ikastaroak direla... Entsaiuak 120 izaten dira

urteko; 300 bat ordu lanean. Herrian 50 aktuzio egiten dituzte eta edozein talde edo elkareren eskarari erantzuten diote. Herri mailan, Nazioarteko Folklore jaialdiarekin batera, San Bartolome egunean, meza ostean dantzatzeko den aureskua da ekintzarik nabarmenena. Lehena go, gerra aurretik, Txiki egunean egiten zen aureskua eta, aurren, 30 urte bete dira aureskua San Bartolome egunean dantzatzeko dela.

Euskal Herriko lurralde guztietako dantza gehienak ezagutzen dituzte eta azken aldian Gipuzkoako dantzekin ari dira buru belarri.

Haritz Dantzari taldeak hasieratik hartu du aureskua dantzatzeko ardura. Elgoibarko aureskuak badu berezitasun bat: Euskal Herri osoan Elgoibarraren bakarrik dantzatzeko da aureskua meza ostean. Lehena go, aureskua dantzari batek dantzatzeko zuten eta gustuko neskarekin ligatzeko formula ezin hobea omen zen.



SARASUA

Meza osteko aureskua Elgoibarran bakarrik egiten da.

Haritz Dantzari taldekoek oso erreperitorio zabala dute. Euskal Herriko lurralde guztietako dantza gehienak ezagutzen dituzte eta azken aldian Gipuzkoako dantzekin ari dira buru belarri. Dantza eskolaren ardura ere Haritz dantzari taldekoen esku dago. Dantza eskolaren arazo nagusia, etorkizunera begira, dantza moderno-ko helduen talderik ez dagoela da eta, beraien ustez, dantzarako tradizio eskasak ez du horretan lagunduko.

Haritz Dantzari taldeak urteko 3 milioi pezetako laguntza jasotzen du. Udalaren eskutik jasotzen duten diru laguntza, osoa, erropatan eta ikastaroak prestatzen gastatzen dute.

Aurtengo Eibarko,

Elgoibarko eta Debako feriei begira, Haritz Dantza taldekoak, hiru herrietan dantza berdina egitekotan dabilta. Beste herrietako dantza taldeekin harremanetan jarri eta denek, metodo berbera erabiltzea nahi dute, herri guztietan dantzak modu berdinean egin daitezen.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1973

Kide kopurua: 85

Arduradunak:

J. Inazio Sarasua eta Lourdes Odriozola

Aktuzioak urteko: 65

Iharduera:

Euskal Dantza

Helbidea:

Merkatu Plaza

"Ekin euskarari" erakusketa Elgoibarren


Elgoibarko Udaleko Euskara Batzordeak, Eusko Jaurlaritzari esker, "Ekin euskarari" izeneko erakusketa ekarri du gure herrira. Erakusketa honen helburua euskara eguneroko bizitzaren arlo guztietan erabili ahal izateko bide berri eta eraginkorrak eskaintzea da.

Euskara gizarteratzeari buruzko erakusketa, gaurtik hasita, hilaren 26ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxeko erakustaretoan. Erakusketaren aurkezpenean, hizkuntzari buruzko hiritarren eskubide eta herri aginteen eginbeharren berri ematen da idatziz; horretarako panelak erabili dira. Halaber, hizkuntza eta bereziki euskara gizarteratzeak zer suposatzen duen aipatzen da. Ordenadore bidez Euskal Autonomi Elkarte-ko Demolinguistikako datuak eta Hizkuntza Politikarako Idaz-

karitza Nagusiaren eginbehar eta ekintzak erakusten dira.

Beste panel batzuetan, euskara gizarteratzean sortzen diren sei egoera ezberdin aurkezten dira. Egoera hauek gure jokabideaz ausnarketa egiten lagunduko digute.

Guzti honetaz gain, erakusketan 6 proiektore eta 480 diapositiba erabiliko dira eta Pedro Migel Urruzuno idazle elgoibartarra (1844-1923) omenduko da. Erakusketaren ordutegia astegunetan iluntzeko 7etatik 9ak arte izango da eta igandetan eguerdiko 12etatik 2ak arte.



Euskara arlo guztietan erabiltzea da helburua.



ERREMINTA
MAKINA
INSTITUTUA

ETENGABEKO FORMAZIO ETA ERREZIKLAIA PROGRAMA

Egitasmo honen baitan, teknikarien kualifikazio maila hobetu nahian, I.M.H.ak 1993 urteko 2. sei hilabeteetarako jarraian aipatzen diren kurtsoak jarriko ditu martxan:

FABRIKAZIOA

(Hasiera data) iraupena ordutan

- C.N.C. tornoen erabilera eta programazioa I eta II mailak (93. 10.11) 160
- Fresadora eta C.N.C. Mekanizatu zentroen erabilera eta programazioa. (I. eta II. maila) (93. 10.11) 160

DIBUJO TEKNIKOA ETA DISEINUA

- Planoen interpretazioa I eta II mailak (93. 10. 18) 125
- Makinen Osagaien Kalkulo, Diseinu eta Eraikuntza (93. 10. 4) 135
- Ordenagailuz Egindako Diseinua: Autocad V. 10 (I. eta II. maila) (93. 10.13) 140
- Ordenagailuz Egindako Diseinua: ANVIL 5000 V.2.1.(I. eta II. maila) (93. 10. 4) 125
- Ordenagailuz Egindako Diseinua: ANVIL 1000 V.1.5. (93. 12. 1) 70
- Ardatzen nekerako kalkulua (93. 11. 20) 35

AUTOMATIKA

- Automata Programariak (93. 09. 27) 80
- Neumatika eta Hidraulika (93. 10. 4) 80
- Mekanikoentzako Elektronika Industrialak (93. 11. 15) 80
- Automatismo Elektrokoak (93. 11. 22) 90

METROLOGIA

(Hasiera data) iraupena ordutan

- Koordinadaz Neurtzeko Makinak: Oinari eta Aplikazioak (93. 10. 18) 70
- Interferometria laser-ezko Neurketa (93. 11. 8) 46
- Neurtzeko Tresna eta Ekipoak Metrologia Dimentsionalean (93. 10. 13) 115
- Ekipo Basikoaren Kalibrazioa Metrologia Dimentsionalean (93. 11. 15) 90

MATERIALAK

- Materiale Tradizionalen Ezagutza eta Kompositesen sarrera (93. 10. 25) 115

KALITATEA

- Kalitate Kontrolaren Teknikak Fabrikazioan (93. 11. 8) 90
- Kalitatearen aholkularitzarako eskuliburuaren prestakuntza (93. 10. 8) 150

MANTENUA

- C.N.C. Makina Herraminten instalakuntza eta mantenua (93. 10. 25) 80

INFORMAZIOA:

ERREMINTA MAKINA INSTITUTUA
Tel.74 41 32 Fax.73 41 53
San Roke Auzoa 1 (Elgoibar)



Gipuzkoako Foru Aldundiaren % 65eko dirulaguntzaz

17 Ostirala

21,45 ZINEA

"Eternamente joven"

Tokia: Plaza handia

Antolatzailea: Ongarri Zine kluba

Z I N E A

"Eternamente joven"

Fantasia erromantiko atsegin bat da Mel Gibson protagonista den pelikula hau. Ipar Amerikako armadako hegazkin gidari bat, emaztegaia hilda dagoen ustean, 50 urte egongo da lotan asmakizun zientifiko bati esker. 50 urte pasa ondoren, bi gaztek armadako biltegian dagoen aparailu arraroa deskubrituko dute. Beraiei esker, berriro bizitzen hasiko da eta bere emaztea bizirik dagoela deskubrituko du.

Z I N E A

18 Larunbata

16,00 ELGOIBARKO II. ESKUBALOI TXAPELKETA

Jubenil mutilak -Bergara -Urola

Tokia: Polikiroldegia

19 Igandea

8,00 BESAIDERA IRTEERA

Irteera tokia: Plaza handia

Antolatzailea: Morkaiko M.E.

10,00 PERRETXIKU LEHIAKETA

Tokia: Plaza handia

Antolatzailea: Karakate M.E.

10,30 ESKUBALOIA

Kadete mutilak-Bergara-Urola

Tokia: Polikiroldegia

21,45 ZINEA

"El guardaespaldas"

Tokia: Plaza handia

Antolatzailea: Ongarri Zine kluba

Z I N E A

"El guardaespaldas"

Frank Farmer eliteko bizkarzain bat da eta Rachel Marron, berriz, abeslari famatu bat. Burutik jota dagoen fan baten eskutitzak direla eta, Rachel, Farmer bezalako zaindari baten beharrea aurkituko da. Tentsiozko momentu honetan inork ez du espero egoera arinduko duen zerbait gerta daitekeenik. Baina hori da, hain zuzen, gertatzen dena biak maitemintzen direnean.

Z I N E A

23 Osteguna

12,30 KALE ANTZERKIA

Antzeslana: Kaixo kale antzerkia

Taldea: Antzerki mutua

Tokia: Nafarroa enparantza

Antolatzailea: AEK.



**BATXILERGO INSTITUTUAK
eta**

LANBIDE HEZIKETAKO INSTITUTUAK



**Irailaren 24ean, ostiralean,
egingo dute kurtsoaren aurkezpena**

*** **L.H.I.** ***

9etan REM (1. zikloa)
11etan REM (2. zikloa)
F.P.
MODULOAK

*** **INSTITUTUA** ***

9etan B.B.B. 1. maila
10etan B.B.B. 2. maila
11etan B.B.B. 3. maila
12etan U.B.I. (C.O.U.)

Etxebizitzak

Berritutako buhardila bat salgai. San Inazio 5.
74 35 09 - 74 31 66

Pisua salgai Deban (Lersundi kalea). 118m², kanpoko aldera eta 3. pisua. Distribuitu gabe. Laguntzak jaso ditzaketeneztat aproposa.
Tel: 74 29 05

Pisua alokatzen dut Santa Ana kaleko 7 zenbakian. **Deitu 74 01 93 - 74 26 8Belen.**

Lana

Ingeniero industrialak matematika, fisika eta kimikako klaseak ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.
74 13 11 Javier

Marrazketa Teknikoan arazotak baldin badituzu klase partikularrak emateko prest nago. EFP eta BTiko ikasleei
Deitu 12:30etatik 2:30etara 74 04 69 zenbakira

Klase partikularrak emateko prest nago OHoko haurrei. Magisteritza titulua eta ingenierritza ikasketak ditut. **74 28 53 Alazne.**

Etxeko lanak, haurrak edo pertsona nagusiak zaindu, kamarera lanak... egiteko prest nago. Euskeraz badakit.
Ainhoa 74 16 89

Neska euskalduna naiz eta haur bat zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago.
Deitu 74 07 30

Iturgintza eta berogailu lanak egiten ditut etxebizitzetan. Prezio merkeak.
74 41 94. Sanchez.

COU, FP eta Batxiller Tekniko eta Moduloetako ikasleei dibujo lineal-industrialeko klaseak ematen dizkiet.
Iñaki: 74 34 01 - 74 17 60

Programatzaileak, partikular, enpresa eta komertzioentzako aplikazio informatikoak egiten ditu. Proiektua aztertze prest gaude inolako kosturik gabe. **74 25 35**

Salerosketak

Automodelismoko kotxea (4 WD KYOSHO) eta emisora (SANWA, oso berria)saltzen dut.. Erregaluz: 3 bateria, errobera joko bat, bi kargadore (bat motela eta bestea azkarra), e.a....
74 03 92 eguerdian. 74 04 65 gauz. Dani.

YAMAHA TZR-80 c.c. saltzen dut. Egoera onean.
Deitu lan orduetan. 11 33 32

SEAT PANDA 40 bat saltzen dut. SS-W matrikula.
74 15 22 Itziar

Opel Midi, 4x4 SS AL bat saltzen dut. Ohe egiten da.
Deitu 74 28 56 gauz.

TOYOTA LAN CRUISERA SS -AF bat saltzen dut.
Deitu lan orduetan 74 13 33

Ezkontzeko soinekoa salgai. Buruko apaingarria eta kankanarekin. Luzea, salmoi kolorekoa, manga motza. Neska- ren neurriak: luzera: 165 zm, bularra: 85 zm, gerria 68 zm. Erdi prezioan: 80.000 pta. Ikusi edo probatu nahi izanez gero, deitu **76 17 81 edo 945-24 32 55 tel.etara.**

"Catusa" 4,20 m. tako karabana bat salgai dut. Ondo zainduta. **74 12 95 Pello.**

65 litroko Aldus Everest motxila eta piolet bat saltzen dut. **74 25 63 Josu**

Umeentzako bizikleta eta uretako paipa bat salgai, biak prezio merkean. **Tel: 74 26 91**

Seat Panda bat saldu nahi nuke. SS 36 38 N
74 14 80 Javi

Ilara bateko patinak salgai. Sky tankerako botak dauzka. 36-37 zenbakikoak. Ikasteko aproposa. **74 02 09 Ainhoa**

Garaje bat saldu edo alokatu-ko genuke. San Roken (pista beltzean). **74 08 79 Julian edo Maria Jesus**

Garaje bat saltzen dut Santa Ana kaleko 2. portalaren alboan. Harremanetarako deitu, **74 06 56 edo 74 42 47**

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mari. Tel: 74 21 35-74 22 10**

Arregitorren garajea saltzen dut. Prezio interesgarria. **Tel: 74 27 39**

Kontaktuak

Eraztun bat aurkitu dut.
Deitu 74 22 33

Etxe bat alokatu nahi dut. Altzariak baditu hobe.
Ainhoa 74 13 61 7etatik-9etara


Orrialde honetako iragarkiak doan dira. Testua idatzi eta ekarri elgoiBARREnera.

TESTUA.....
.....
.....
.....
.....

- ★ Euskal Herri batu, burujabe eta euskaldunaren aldekoa bazara.
- ★ Justiziazko bakearen aldekoa bazara.
- ★ Konfliktu politikoak negoziatioaz konpontzen direla uste baduzu.

**Zatoz Donostiara 18an
Autobusa 4etan Plazan**

PAGOAGA S.A. Iturgintza



GAS INSTALATZAILEA, IG4 baimenarekin

**Gas Naturala
eta
Propanoa**

KANPORAKO ETA ETXE BARRURAKO.

- ↳ ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK
- ↳ IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN

☎ 74 02 79-74 05 12 ELGOIBAR

❖ *Lubia jatetxea* ❖

Berezitasunak: Arraina eta haragia erreta eta bildotsa burduntzi erara

- ❖ EZKONTZAK
- ❖ BATAIOAK
- ❖ JAUNARTZEAK
- ❖ DESPEDIDAK
- ❖ EGUNEROKO MENUAK
- ❖ BILERETARAKO
MENU BEREZIAK
- ❖ ETAB...



K/ Bainuetxe zumardia, 2- Tel. 74 05 13. ALTZOLA-ELGOIBAR